ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2018ko martxoaren 21a, asteazkena • 34 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

# LEZAKO UDALA

**Jendaurrean jartzea trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2018ko errolda eta zerga kobratzeko moduan jartzea**

Lezako trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga 2018an ordaindu behar dutenen errolda behin-behineko onartu ondoren, espedientea hamabost egun baliodunez egongo da jendaurrean, udal idazkaritzan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betiko onartutzat joko da.

Borondatezko aldiko dirubilketa apirilaren 1etik maiatzaren 31ra izango da, egun biak barne.

Ordainketa inongo banketxe edo aurrezki kutxatan helbideratu ez duten zergapekoek udal bulegoetan ordaindu beharko dute, borondatezko aldian.

Bankuetan helbideratutako ordainketak: udalak izapidetuko ditu. Zergadunei jakinarazten zaie ordainketen banku helbideratzeetako altak edo aldaketak Lezako Udalean izapidetu behar direla.

Borondatezko aldia amaituta, ordaindu gabeko kuotak premiamenduko betearazte bidean sartuko dira, eta legez ezarritako errekarguak, eta, hala badagokio, berandutze korrituak eta kostuak sortuko dituzte.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Leza, 2018ko martxoaren 9a

*Alkatea*
*INMACULADA LAREDO FUERTES*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, OU=ZIURTAGIRI ONARTUA - CERTIFICADO RECONOCIDO, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 108817
Fecha de firma: 2018.03.21 06:28:18 Z